

ETA LO HARTU NUEN...

Txorimalo

El paseo entre Ikaztegieta y Murumendi, una hermosa mañana de Otoño, me sugiere tantos pensamientos sobre las bellezas de la naturaleza... Aquí las resumo apoyándome en unas citas de nuestros escritores.

*Oi, lur, oi, lur!
Oi, ene lur nerea!...
oi, goiz eme,
parre gozoz ernea!...*

...Ikaztegieta heldu ginenean, geltoki txiki txuria hutsik eta laino urdinskaren menpean zegoen. Segidan, belarrekin borrokan zebilen bide hura hartu genuen, burnizko zubiraino iritsi, eta zintzilik da goen bideskatik, Oria ibaiaren gainetik pasatu ginen.

Bidetik gindoazelarik, nahasmen lainotsu eta hauts kolorezko hartatik, haizeak mugitzen zituen zuhaitzen adarreatatik, hostoen zurrumurrua nabaria egiten zen, eta gutaraino heltzen zenean, gure ileak dantza trebean jartzen zituen.

Txori goiztiar batek ere, kantari ekin zion, eta guzti hori, ibaiaren marmarrarekin batera, izugarritzko, bakun eta benetazko sinfoni baten gisa, aurreneko aulkietan, zutik, entzuten egon izan bagina bezala aurki erazi zigun, ama natura gidari zelarik.

Pues si nuestras vidas son los ríos que van a dar al mar, etcétera, muy turbias debemos de tener nuestras conciencias. Resulta difícil, por rapsódico que tenga uno el ánimo al levantarse, componer algo referente a las aguas cristalinas en cuya superficie irrisada destella el sol. De superficies irrisadas nada. Marrón.

Nork ipini dizkit lerro hauek ene horrialde txurian?

Agian, ene luma ausartiak?
Agian, natura amonaxoa?

Baina, jarrai dezagun. Gogoratuko duzu sinfoni baten magalean Mariren mendira gindoazela.

Laister, lehenagoko bidea alde batera utziz, eskubira jo genuen, izerdiaren ttantto bihurriak, kopetan jaio eta sudurretik kili-kili egiten irristatzen direnak, aldaparekin batera agertzen ziren bitartean.

Emeki-emeki, bizitza nahas eta goibelean jarri edo finkatzen zen lainoa, beheraldean utzi genuen; goitik, oilarraren lehen karraxi luze eta ozenekin batera, eguzki lotsatiaren izpi ausartiak agertzen hasi ziren.

Ilargiak, bere lana gauzaina zelataz ahaztuta zegoena, zeru urdin zabalean,

eguzkiarekin topo egin zuen, eta hari kolore gorriskak sortarazi zizkion.

Pistatxo bat hartuz gero, Aldabako baselizatxora iritsi ginen. Horrela, eta atarian idatzita zegoen bezala, ondoko baserrian giltza eskatu genuen. Laister, barnean geunden, erdi zoratuta, kristalezko aldare garden ederretik Aralar mendikatea ikusten...



Foto del autor.

Handik, bertso hau jaso genuen: *Agur, nik maite nuen euskaldun erria agur nere senide, agur baserria, zuk emanak nituen Jainko maitetzia pozik, zuk eskatuta, damaitzut guztia.*

Jarraitzerakoan, belarrez beterik zegoen katu jolasti batekin topatu ginen, eta segidan, nere lagun Xabierrek esan zidana gogoratu nuen. Hark, katu bat izan omen zuen, eta haren denborapasa hoberena garbigailuari begiratzea izaten zen, bere barne mugimentuari bereiziki; behin, jantzi zikinak han sartu ondoren, katuaren faltaz konturatu ziren... Ene! Katu txikiaren usain goxoa...

Behin berriro bidean genbilen —beti bidean—, gure solasalditxoak egiten, mendiararen edertasuna gai zelarik. Gauza baku-

nen balioaz, egun bakun baina zoragarrietan konturatzen bait zara, eta haietan murgildu ere, eta igeri, eta bakarrik joaten zara besteen artean, barne bakarriketak eginez, agian ezertaz pentsatzen, baina pozik, arnas garbi hura sentitzen, irensten.

Horrela, Murumendiren magalean, Santa Marinara heldu ginen, eta oraingo lerroak ikusirik, lehenagoko pagadi, sagardi eta beste hainbeste zuhaitzetaz oroitu ginen.

Sí, nuestro país es un país humilde, pero un país sonriente e ingenuo, y cuando el sol de otoño lo ilumina con su luz dorada, cuando en las tardes de domingo los campesinos bailan en las plazas de los pueblos al son del silbo y del tamboril, para ti, poeta, es un país encantador...

Bide txikia, bihurria, igandeetako jantzia zeraman bere bizkarraren gainean; txoriek, igandeetako txorrotzioak abesten zituzten; udazkena bera ere, ederki apainduta zegoen.

Txori haiek, zozoatik hasi eta okilarekin bukatu arte, beti izango dute ene baitan oihartzun maite eta goxo bat; baina, beste batzuk ere badute enetzat oroitzen bereziak. Bata, Pittin txoria, urtero, bere urtebetetzearen egunean, irailearen hogeitazortzian, nere lagunaren gozoki bereziak jasotzen du, baina, nahiago izango du, ziur nago, askatasunaren gozoki goxoa haizearekin batera egan egiteko. Bestea, izotzaldi batean, kanpoan ahaztuta gelditu zen, urrengo egunean estatuatxo isiltsu bat zuten kaiolaren barnean.

Gure pausoa hotsek, gogorrek, betikoek, hostoen oihi isiltsuak jasotzen zituzten.

Horrela, eta txingurri ausarti bat hankatik gora igotzen zitzaidan bitartean, Ernio, Izarraitz, Udala, Anboto, Aralar eta Aizkorri lagun jatorrekin, lo hartu nuen...

*Bañan... ezin:
beeko bear goriak
narama... Agur,
soro, sagar, mendiak!...*

«Textuak:

Lizardi, R. Castellano eta Pio Baroja».